

2016KO URTARRILEKO EFEMERIDEAK

(Ordu guztiak denbora unibertsalean eman dira. Neguko ordutegian, gehitu 1 ordu denbora ofiziala kalkulatzeko)

BEHAKETA PROPOSAMENAK

Begi hutsez:

-Hilaren 1an, gauerdian, Canis Mayor konstelazioko Sirio izar haundia gure meridianotik gertu pasatuko da. Momentu egokia izango da ere Orion izeneko konstelazioa ikusteko.

-Hilaren 1an, 11:00an, Perseo konstelazioko Algol izarraren distira minimoa. Magnitudea 3,3. Hileko beste minimoak 4an, 7an, 10an, 12an, 15an, 18an, 21an, 24an eta 27an eta 30an izango dira.

-Hilaren 3an, 01:00an, Delta Cephei izar aldakorraren distira maximoa; magnitudea 3,5etik 4,4ra aldatzen zaio 5,366 egunean behin. Beste maximoak 8an, 13an, 19an, 24an eta 29an izango dira.

-Hilaren 4an, 14:00an, Eta Aquilae izar aldakorraren distira maximoa; magnitudea 3,5etik 4,4ra aldatzen zaio 7,177 egunean behin. Beste maximoak, 11an, 18an eta 26an izango dira.

-Hilaren 7an, Egunsentia baino lehenago, Artizarra ikusi dezakegu Ilargia, Antares eta Saturno ondoan. Hilaren amaieran, arratsalde amaieran, zodiakoaren argitasuna ikus daiteke mendebaldeko zeruhertz gainean, Piscis eta Aries artean.

Teleskopio edo prismetikoeekin:

-Hilaren 1an, C/2013 US10 Catalina kometa ikus daiteke, Boyero konstelazioko Arturo izarretik gertu.

Magnitudea 5. Hilaren 13an, ehiza txakurren konstelazioan aurkituko dugu, Hartz handiaren Alcaid izarreruntz bidean. Hilaren 15an, izar honen 1^ora aurkituko da. Hilaren 31an, ipar izarretik gertu pasatuko da.

- Momentu egokia NGC 6946 izeneko galaxia ikusi eta argazkiak egin ahal izateko. 1798. Urtean aurkitu zuen William Herschel-ek, aurrez ikusitako espiral baten itxura du. Cepheo eta Antzarraren konstelazioen artean aurkitzen da. Alderamin izarretik 6^ora aurkitu dezakegu, hegoalde hego-mendebalderuntz. Magnitudea 9. Joan den mendetik honera 9 supernova aurkitu dira galaxia honetan.

ILARGIA URTARRILEAN

02 05:32an, Ilbehera.

02 12:01an, apogeoetik pasatuko da. Ilargiaren eta Lurraren arteko distantziarik handiena: 404.280 km (aurreko perigeoan baino 35.857 km gehiago).

03 07:35an, konjuntzio geozentrikoan Virgo konstelazioko Spica izarrarekin, 4,5^ora.

03 19:51an, konjuntzio geozentrikoan Marterekin, 1,4^ora.

07 00:54an, konjuntzio geozentrikoan Artizarrarekin, 3,1^ora.

07 01:59an, konjuntzio geozentrikoan Eskorpioko Antares izarrarekin, 9,5^ora.

07 05:27an, konjuntzio geozentrikoan Saturnorekin, 3,3^ora.

10 01:31an, Ilberria.

13 13:17 konjuntzio geozentrikoan Neptunorekin, 2,2^ora.

14 15:45an, beherunzko nodotik pasatuko da.

15 01:57an, perigeotik pasatuko da. Ilargiaren eta Lurraren arteko distantziarik txikiena 369.635 km (aurreko apogeoan baino 34.645 gutxiago).

16 23:27an, Ilgora.

19 09:25an, konjuntzio geozentrikoan Tauro konstelazioko Pleyadeekin, 8,8^ora.

20 02:32an, (San Sebastian gaua) konjuntzio geozentrikoan Aldebaran izarrarekin, Izarra ilargiagatik estalia izango da, baina gure latitudeatik zeruhertzetik 4^ora emango da, beraz berragertzea ezin izango da ikusi.

21 librazio maximoa latitudean (b=6,7^o)

24 01:46an, Otsoen Ilbetea. Hilaren 23an, ekialdeko zeruhertzean azalduko da, mendebaldetik eguzkia sartu baino lehenago.

27 23:58an, gorunzko nodotik pasatuko da.

28 00:10an, konjuntzio geozentrikoan Jupiterrekin 1,4^ora.

30 08:44an, apogeoetik pasatuko da. Ilargiaren eta Lurraren arteko distantziarik handiena: 404.549 km (aurreko perigeoan baino 34.914 km gehiago).

30 15:47an, konjuntzio geozentrikoan Virgo konstelazioko Spica izarrarekin, 4,8^ora.

PLANETAK URTARRILEAN (LURRAREN ORBITA-ABIADURA: 107.280 Km/h)

Merkurio (ikusteko zaila, hilaren 5a baino lehenago edo 20a ondoren) orbita-abiadura 172.440 Km/h

Behe konjuntzioan hilaren 14an. Hilaren 5 baino lehen, eguzkia sartu eta minutu gutxira ikus daiteke hego-mendebaldeko zeruhertz gainean, Errezago ikusi ahal izango da hilaren 20tik aurrera, egunsentia baino lehen ekialde hego-ekialdeko zeruhertzean, atmosfera garbi eta horizonte ireki batekin. Igoera zuzena 20h eta 19h artean, deklinazioa -21° , -18° eta -20° artean. Capricornio eta Sagitariotik pasatuko da. Magnitudea 0,8ra iritsiko da hilaren amaieran.

Artizarra (Gau amaieran ikusi ahal izango da) orbita-abiadura 126.000 Km/h

Eguzkia baino hiru ordu lehenago azalduko da, eta egunsentian hego-ekialdeko zeruhertzetik 10° ko altura lortuko du. Behaketarako baldintzak egunez egun okertzen joango dira, baina Saturno ondoan ikusteko aukera eskeiniko digu oraindik. Igoera zuzena 16h eta 18h artean, deklinazioa -19° eta -22° bitarte. Hilabetea Eskorpion hasiko du baina Ofiuotik pasa eta Sagitarion amaituko du. Magnitudea $-4,1$ eta $-4,0$ tartean mantenduko da.

Hilaren 9an Saturnotik hain dago gertu, ezingo direla begi hutsez bereizi, prismatikoekin bai ordea.

Marte (gauaren bigarren erdialdean ikusi ahal izango da) orbita-abiadura 86.760km/h

Eguzkia baino sei ordu lehenago azalduko da hilabete guztian zehar. Distira eta behaketa denbora haundituz doaz egunero. Igoera zuzena 14h eta 15h artean, deklinazioa -10° eta -14° bitarte. Hilabetea Virgo hasi eta Libran amaituko du. Magnitudea $1,3^{\circ}$ tik $0,9$ ra igoko du.

Hilaren 3 eta 4an ilbeheraren ondoan ikus daiteke egunsentia baino lehen.

Jupiter (Gauaren bigarren erdialdean ikus daiteke) orbita-abiadura 47.160 Km/h

Eguzkia baino bederatzi ordu lehenago azalduko da hilaren 1an, eta hamaika ordu lehenago 31an (edo eguzkia sartu eta hiru ordu t'erdia beranduago). Hilaren 8an engonkor azalduko da, bere eretrogradazio mugimendua hasten bait du ekliptikaren mendebalderantz, martxoaren 8ko oposizioa baino aste batzuk lehenago. Gari egokian aurkituko gara behaketarako. Igoera zuzena, 11:30h, deklinazioa 4° . Hilabete guztia Leon emango du. Magnitude apur bat igoko du $-2,2$ tik $-2,4$ ra.

Saturno (Gau amaieran ikusi ahal izango da) orbita-abiadura 34.560Km/h

Eguzkia baino bi ordu lehenago azalduko da hilaren 1an, eta lau ordu lehenago hilaren 31an. Hilaren 15an, egunsentia baino lehentxeago, hego-ekialdeko zeruhertzetik 15° ra ikus daiteke, baina atmosferako turbulenziek behaketan traba egin dezakete. Igoera zuzena 17h, deklinazioa -21° . Hilabete guztia Ofiuotik emango du. Magnitudea $0,5$ en engonkor mantenduko da.

02, 14:19an, Titanen elongazio maximoa planetaren ekialdera.

10, 14:31an, Titanen elongazio maximoa planetaren mendebaldera.

18, 14:54an, Titanen elongazio maximoa planetaren ekialdera.

26, 15:05an, Titanen elongazio maximoa planetaren mendebaldera.

Urano (gau hasieratik ikusi ahal izango da) orbita-abiadura 24.480 Km/h

Hilaren 7an koadraturan (90°) aurkituko da eguzkiaren ekialdera. Teorikoki, hilaren erdialderako begi hutsez ikusi ahal izango litzateke, hegoalde hego-mendebaldeko zeruhertzetik 50° ra. Igoera zuzena 1h, deklinazioa 6° . Hilabete guztia Piscisen emango du. Magnitudea $5,8$ tik $5,9$ ra jetsiko da.

Neptuno (gau hasieran bakarrik ikusi ahal izango da) orbita-abiadura 19.440 Km/h

Mendebalde hego-mendebaldeko zeruhertzetik 20° ra aurki dezakegu gau hasieran. Hilaren 13an Ilgora ondoan aurkituko dugu. Igoera zuzena 22h, deklinazioa -9° . Hilabete guztia Akuarion emango du. Magnitudea zertxobait ahulduko da $7,9$ tik 8 ra.

URTARRILEKO BESTE EFEMERIDE BATZUK

-01 ostirala, . Eguerdian, Juliotar egutegiko 2.457.389. eguna hasiko da.

-Egunaren iraupena 9 ordu eta 2 minutukoa izango da hilaren 1an, eta 9 ordu eta 53 minutukoa hilaren 31an. 51 minutuko diferentzia.

-Urtarrileko lehen hamar egunak, egunsenti beranduenak dira. Hamar egun horietan eguzkia 8:40an azalduko da, minutu berean hamar egunetan. Hilaren amaierako, eguzkia 8:25an azalduko da, hau da, 15 minutu lehenago.

-Arratsaldean, eguzkia 17:42an sartuko da hilaren 1an, eta 18:18an hilaren 31an, 36 minutuko diferentzia.



- Hilaren 2an, 22:49an, lurra eguzkiarekiko puntu gertuenean aurkituko da 2016. urtean. Puntu honi perihelio esaten zaio, hilaren 1a eta 5an bitarte izan daiteke. Aldakuntza hau bere barizentroko inguruan Lur-Ilargi birari lotuta dago. Gertuen emten diren perihelioak ilbeheran emten dira, eta urrutikoenak ilgoran.
- Hilaren 4an 2016 urteko lehen astea hasiko da. Estandarizazio Nazioarteko Erakundearen arabera, urtarrileko lehen osteguna duen astea hau da.
- hilaren 4an, Lurrak 2003 EH1 asteroideak utzitako lorratza zeharkatuko du, zeinek kometa jarduera izan zezakeen duela mende batzuk. Kuadrantidak bezela ezagutzen diren izar iheskorak sortuko ditu, eta erradiantea herensugearen burua eta hartz handiko Alcor eta Mizar izarren artean aurkituko da. Behaketarako momento egokia gau hasieran, ilargiaren argirik Gabe.
- Hilaren 17an, Lurrak C/1931 P1 Ryves kometak utzitako lorratza zeharkatuko du, Delta Cancri bezela ezagutzen diren izar iheskorak sortuz. Ilgorak behaketa zailago egingo du gau hasieran.
- Hilaren 20an 12:38an, eguzkia itxuraz Kaprikornio konstelazioan sartuko da ($299,88^{\circ}$)
- Hilaren 20an, Astrologiaren arabera, eguzkia Akuarion sartuko da (300°). .Zodiakoaren zeinuen mugak longitudean, eta izen bera eramaten duten zodiakoaren konstelazioen mugak ez datoz bat.